**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **05. Ogasuna eta Finantzak**<br>**05. *Hacienda y Finanzas*** | **02.** Ogasuna<br>**02.** *Hacienda* | **610.302** Ikuskapena eta KLTZ<br>**610.302** *Inspección y SCAT* |

610.302 egitarauak, “Ikuskapena eta KLTZ” izenekoak, Ikuskapen Zuzendariordetzari eta Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzari dagokien jarduera biltzen du.

El programa 610.302 denominado “Inspección y SCAT” aglutina la actividad correspondiente a las Subdirecciones de Inspección y de Coordinación y Asistencia Técnica dependientes de la Dirección General de Hacienda.

1. Ikuskapen Zuzendariordetza.

1. Subdirección de Inspección.

610.302 egitarauak, Ikuskapen Zuzendariordetzari dagokionez, helburuen artean zerga betebeharrak dituztenen zerga egoera frogatzea dago, hain zuzen ere Foru Ogasunarekin dituzten betebehar eta beharkizun horiek zehatz betetzen dituztela egiaztatzeko eta, hala denean, bidezko erregularizazioari ekiteko. Helburu horiek hobeto betetzeko, 2009. urtean I eta II. Jarduketa Zerbitzuak eta Plangintza eta Auditoretza Informatikorako Zerbitzua sortu ziren Zuzendariordetzaren azpian, eta lehengo Ikuskapen Zerbitzua Ikuskapena Koordinatzeko Zerbitzu bihurtu zen.

El programa 610.302, por lo que se refiere a la Subdirección de Inspección,  tiene entre sus objetivos la comprobación de la situación tributaria de los distintos obligados tributarios, con el fin de verificar el exacto cumplimiento de sus obligaciones y deberes para con la Hacienda Foral, procediendo, en su caso, a la regularización correspondiente. Para un mejor cumplimento de estos objetivos se crearon durante el año 2009 dentro de la Subdirección los Servicios de Actuaciones Inspectoras I y II y el Servicio de Planficación y Auditoría Informática y se reconvirtió el antiguo Servicio de Inspección en el Servicio de Coordinación de la Inspección.

Arestian aipatu den funtzio hori zailagoa bihurtu da denborak aurrera egin ahala tartean inguruabar jakin batzuk izan direlako, esaterako maula egiteko bitartekoak egun zorrotzagoak direlako, ekonomia globalizatu delako, zergak nazioarteko kontu bihurtu direlako eta finantza-figura berriak agertu direlako. Kontua da baldintza horiekin maulak egiten dituzten talde egituratuak azaldu direla. Mota horretako jarduketak antzemateko eta horiek egitea eragozteko derrigorrezkoa da kudeaketa eta ikuskapena eta zergabilketa egiten duten organoen arteko lankidetza estua, eragiketa horiek jatorritik bertatik aurrearretaz zaintzeko eta antzemateko.  Horrek esan nahi du pertsonal askok egin behar duela lan ataza horietan, aurrearretazkoak izan arren, zergabilketaren onurarako izango direlako.

La función mencionada se ha ido dificultando con el tiempo en parte debido a una serie de circunstancias, como la sofisticación de los medios de defraudación, la globalización de la economía, la internacionalización fiscal y la aparición de nuevas figuras financieras. Todo ello ha dado lugar a la aparición de nuevos sistema de fraude más sofisticados. Para detectar y dificultar la realización de este tipo de actuaciones es necesaria una estrecha colaboración entre los órganos de gestión e inspección y recaudación, con el objeto de prevenir y detectarlas en origen. Todo ello supone una importante dedicación de personal en este tipo de tareas que, aún siendo preventivas, redundarán en la mejora de la recaudación.

Arestian aipatu diren termino horietan maula egiten duten talde handi antolatu eta egituratu horien aurka egitea ez ezik, frogaketa eta ikerketa orokorraren arloko jarduketak egiteko beharrezkoa da aurrez zerga ordaindu behar dutenen aukeraketa egitea. Ondore horretarako funtzio horiek betetzeko bidezko jarduketa plana egokitu

Además de las tareas preventivas señaladas anteriormente, la realización de actuaciones de comprobación e investigación requieren de una previa selección de obligados tributarios. Para ello, el ejercicio de estas funciones se debe adecuar al correspondiente plan de actuación. El Servicio de Planificación y Auditoría Informática,

behar da. Plangintza eta Auditoretza Informatikorako Zerbitzuak, ikuskapen plana egiteko talde berezi gisa, saileko goragoko organoek ematen dituzten gidalerroak jarraituz, zerga ordaindu behar dutenen artean horiek egin dituzten zerga-egitate guztiak osorik edo egia osorik esan gabe zainpetu ez dituztela adierazten duten zantzu nahikoak dituztenak aukeratzen ditu. Alde horretatik, Bizkaiko Foru Ogasunean o Maularen Aurkako Batzordearen esparruan ezartzen diren gidalerroak jarraituko dira. Batzorde horretan, Plangintza eta Auditoretza Informatikorako Zerbitzuko buruak, Ikuskapena Koordinatzeko  Zerbitzuko buruak eta Ikuskapen zuzendariordeak hartzen dute parte, eta Auditoretza Informatikoaren Unitateko arduradunak betetzen ditu organo horretako idazkari funtzioak.

Zergen arloan eragina duten datuak eskuratzea eta horien azterketa, batez ere informatikoa, dira antzemateari dagokionez erabiltzen diren tresna nagusiak. Subjektu pasibo ukituak ikuskapen planean sartzea aholkatzen duten zergen arloko anomaliak zuhurtziarakotasun eta eraginkortasun irizpideak erabiliz burutzen dira.

Zergen arloari dagokionez garrantzitsua den informazioaren kalitatea eta kantitatea hobetzea da maularen aurkako borroka honetan eragina izango duen lehentasunetako bat. Informazioaren kalitateak hala zergak ordaindu behar dituztenei buruzko frogaketa-eragiketen hobekuntza lortzeko nola etorkizuneko ikuskapen planetan sartuko direnak hobeto aukeratzeko balio behar du. Ondore horietarako, Auditoretza Informatikoaren Unitateko kideak gehitu zaizkio Plangintza eta Auditoretza Informatikorako Zerbitzuari, hain zuzen ere hautespenerako bitartekoak hobetzearen ondoreetarako .

Bestalde, eta osagarri modura, tresna informatikoak modernizatze aldera, iruzurraren aurka borroka egiteko tresna berri baten proba pilotua egin da. Tresna horri esker, zergadunek datu ez ekonomikoetan dituzten harremanak identifikatu eta antzemateko erraztasunak egongo dira, eta, azkenik, iruzur-arriskuaren mailak ezarriko dira, aurrez definitutako negozio-arau batzuetan oinarrituta. Bitarteko hori 2013. urtean

como grupo específico para la elaboración del plan de inspección que, siguiendo las directrices emanadas de los órganos superiores del Departamento, se encarga de seleccionar los obligados tributarios en los que se detectan indicios racionales suficientes de que no han consignado en sus declaraciones tributarias, de forma veraz y completa, todos los hechos imponibles realizados. En este sentido, se seguirán las directrices que se establezcan en el marco de la Comisión de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia, en la que participan el Jefe del Servicio de Planificación de Auditoriá Informática, el Jefe del Servicio de Coordinación de la Inspección y el Subdirector de Inspección, ejerciendo el responsable de la Unidad de Auditoría Informática las funciones de secretario de este órgano.

La obtención de datos con trascendencia tributaria y el análisis, fundamentalmente informático, de los mismos, constituyen las principales herramientas empleadas en la detección, con criterios de discrecionalidad y eficacia, de las anomalías fiscales que aconsejan la inclusión en el plan de inspección de los obligados tributarios afectados.

La mejora en la calidad y cantidad de la información con trascendencia tributaria es una de las prioridades que deben incidir en la lucha contra el fraude. La calidad de la información debe servir tanto para la mejora de los resultados de las actuaciones de comprobación de los obligados tributarios, como para la mejora en la selección de los que conformarán futuros planes de inspección. A estos efectos, se ha incluido en el Servicio de Planificación y Auditoria Informática a los miembros de la Unidad de Auditoría Informática, con el objeto de mejorar las herramientas de selección.

Por otro lado, y de forma complementaria, como una parte de la modernización de las herramientas informáticas, se ha procedido a realizar una prueba piloto de una nueva herramienta de lucha contra el fraude que nos facilite la labor de identificación, de detección de las interrelaciones entre los contribuyentes en base a datos no económicos y, por último, la fijación de niveles de riesgo de fraude basados en

zehar ezarriko da behin betiko eta, aldi berean, arestian adierazi diren erabilera horiek guztiak ez ezik, egiaztatzeko hautatuko diren espedienteen kasuan zergen arloko administrazioko organo guztiek egingo dituzten jarduketen jarraipena egiteko balioko du.

unas reglas de negocio previamente definidas. Esta herramienta será implantada definitivamente a lo largo del año 2013 sirviendo, además de las utilidades anteriormente señaladas, de seguimiento de las actuaciones realizadas por los diversos órganos de la Administración tributaria en los diversos expedientes seleccionados para su comprobación.

Ikuskapen planaren betearazpenean eragingarritasuna areagotzearen ondoreetarako ikuskapenetan egiten diren frogaketetan orokortu dira jarduera ekonomikoak eta profesionalak egiten dituzten eta zergak ordaindu behar dituztenen sistema informatikoen egiaztapenak. Bada, auditoretza informatiko horiek egitearen xedea ikuskatzailetza egiten duen pertsonalak sistema informatikoetan erregistratzen diren edo idazten diren eragiketa ekonomikoen osotasuna eta zehaztasunari buruzko iritzi oinarritua izatea da, gogoan edukita idazkuntza eta erregistro horien emaitza direla kontabilitate-egoerak eta zerga aitorpenak. Eragiketa horiek era guztietako prozesuen eta kontrolen bidez gauzatuko dira eta erreminta informatiko egokien laguntzarekin egingo dira, beti ere Europar Batasunak aholkatzen dituen estandarrak eta metodologiekin bat.

Con el objeto de incrementar la eficiencia en la ejecución del Plan de inspección, se ha generalizado en las comprobaciones inspectoras la verificación de los sistemas informáticos de los obligados tributarios que desarrollan actividades económicas y profesionales. El objeto de la realización de estas auditorías informáticas es obtener las evidencias necesarias que permitan al personal inspector formarse una opinión fundada sobre la integridad y exactitud del registro o anotación de las operaciones económicas en los sistemas informáticos, de los que derivan los estados contables y las declaraciones tributarias, mediante la realización de todo tipo de procesos y controles con la ayuda de las herramientas informáticas apropiadas y conforme a los estándares y metodología de trabajo recomendados en la Unión Europea.

Jarduera hori ikuskapen-prozedurak izapidetzen dituen langile ikuskatzaileek egiten dute eta azken helburua erarik eragingarrienean, eraginkorrenean eta seguruenean ikuskatzailetzako funtzioak garatzea da, aldi berean hori guztia eragile ekonomiko gehienek erabiltzen dituzten kudeaketa- irtenbideei egokituz, gaur egun arloa informazioaren gizartean erabat murgilduta dagoela kontuan hartuta. Horrek guztiak badu abantaila gehigarririk, adibidez kontrol-prozesuetan ikuskapenerako organoekiko lankidetza betebeharraren ondorioz zergak ordaindu behar dituzten zergadunen zeharkako zerga presioa arintzen dela.

Esta actividad es realizada por el propio personal inspector que tramita los diversos procedimientos de inspección, y cuyo objetivo último es atender al desarrollo de la función inspectora de la forma más eficaz, eficiente y segura posible, al tiempo que adaptada a las soluciones de gestión utilizadas por la mayoría de los agentes económicos, inmersos en el pleno desarrollo de la Sociedad de la Información, produciendo el beneficio adicional de reducir la presión fiscal indirecta de los obligados tributarios, derivada del cumplimiento de su deber de colaboración con los órganos de inspección en los procesos de control.

Ikuskapen Zuzendariordetzan egin diren bestelako jarduketen artean daude, besteak beste, ondoko hauek: eskubide, errenta, produktu, ondasun, ondare, enpresa eta beste elementu batzuen balioa frogatzea; eta zerga hobariak edo

Otras funciones realizadas en la Subdirección de Inspección son la comprobación del valor de derechos, rentas, productos, bienes, patrimonios, empresas y demás elementos, así como la comprobación del cumplimiento de los requisitos

pizgarriak eskuratzeko eskatzen diren beharkizunak betetzen direla frogatzea; eta, azkenik, zerga araubide berezien aplikazioa.

Arestian adierazi diren funtzio horiek betetzeko, Ikuskapena Koordinatzeko Zerbitzua zerga agenteen atal batean eta administrazioko pertsonalaren atal batean dago antolatuta, eta ikuskatzaileen eta ikuskatzaileordeen talde bat ere badu. Plangintza eta Auditoretza Informatikorako Zerbitzuaz gain (jadanik azaldu dugu zerbitzu horrek zer eginkizun duen), beste bi talde daude plana betearaztearen ardura dutenak eta arestian aipatu diren gainerakoak burutzen dituztenak. Azkenik, zerga eragileek eratzen duten atala dago, plana prestatzeko eta betearazteko informazioa eskuratzeko funtzioak dituena eta zerga itzulketak lortzeko eskatzen diren beharkizunak frogatzen dituena. Azpimarratu egin behar da 2012. urtean prozedura berria sortu dela, egiztapen edo froga murriztukoa deritzona, horren tramitazioa batez ere zerga eragileek egingo dute eta erreminta azkar eta eragingarria izango da zerga egitateko elementu jakin batzuk egiaztatzerakoan eta, ondorioz, aukera emango du zergadun kopuru handien egiaztapenak egiteko. Zerga Dokumentazio Ataleko administrazioko pertsonalak egiten dituen lanen artean hautespen funtzioetan laguntzea, aktuarioek eskatuta informazio zehatza bilatzea, espedienteen tramitazioa eta abar daude.

2013. urterako egin diren aurreikuspenen arabera, ikuskatzailetzako 4.650 jarduketa egingo dira. Jarduketa horien barruan sartzen dira frogaketa eta ikerketaren arloko jarduketak, hain zuzen ere zergaren obligazioa duena bertan egon gabe burutzen direnak, eta ikuskatzaile eta azpikuskatzaileek tramitatuko dituzten frogaketa murriztuak. Hau guztia Ikuskapenak zerga maularen aurka burutzen duen borrokaren ahaleginaren ondorioz zenbatetsi da, bereziki maula egiteko tramen aurka.

Arestian adierazi diren zenbateko horiek ez ezik Zerga Eragileek egiten duten lana aipatu behar

exigidos para la obtención de beneficios o incentivos fiscales y devoluciones tributarias, así como para la aplicación de regímenes tributarios especiales.

Para la realización de las funciones señaladas anteriormente, el Servicio de Coordinación de la Inspección está organizado, en una sección de Agentes Fiscales y en una Sección con personal administrativo, además de contar con un grupo de inspectores y subinspectores. Además del Servicio de Planificación y Auditoría Informática, cuyas funciones ya se han explicado, los Servicios de Actuaciones Inspectoras I y II se encargan de la ejecución del plan y demás funciones señaladas anteriormente. Por último, la sección donde se encuadran los agentes fiscales realiza funciones de obtención de información y comprobaciones restringidas, así como tareas auxiliares de recopilación y análisis de información en relación con procedimientos de comprobación e investigación. Hay que destacar que en 2012 se ha creado un nuevo procedimiento, denominado de comprobación reducida, cuya tramitación será realizada fundamentalmente por los agentes fiscales, como instrumento agil y eficaz en la comprobación de elmentos concretos del hecho imponible, de forma que permita la comprobación masiva de contribuyentes. El personal administrativo de la Sección de Documentación Fiscal realiza tareas diversas como el apoyo en las funciones de selección, búsqueda de información concreta a petición de los actuarios, tramitación de expedientes, etc.

Para el año 2013 está previsto que se realicen 4.650 actuaciones inspectoras. Estas actuaciones engloban las actuaciones de comprobación e investigación, de regularización sin presencia del obligado tributario y las comprobaciones restringidas que se tramitarán por los inspectores y subinspectores. Todo ello se estima como consecuencia del esfuerzo de la Inspección en la lucha contra el fraude fiscal.

Además de las cifras señaladas anteriormente hay que añadir el trabajo que realizarán los Agentes

da. Helburua 1.800 jarduketa egitea da, eta jarduketa horien barruan sartzen dira, besteak beste, frogaketa murriztuak eta gutxituak, informazioa lortzekoak eta ikuskatzaileen eta azpikuskatzaileen lankidetzakoak.

Ikuskapenak aurreikusi duen beste helburu bat “Aholkularitza eta txostenak” deritzona da. Helburu honen barruan bi ekintza mota daude. Lehenengo ekintza txostenak egitea da eta ikuskapenak gertaera jakin batzuei dagokienez duen iritzia islatzen duten dokumentuak dira eta, hala denean, horien kalifikazio juridikoa ematen dutenak, zertarako-eta ebazpena eman behar duen organoak asmatzeko bermerik handienekin ebazteko epaitzeko elementu guztiak eskura izan ditzan. Azpimarratu behar da gero eta gehiago direla merkataritzako eragiketen egiazkotasuna aztertzen dutenak eta, horretarako ustez horietan zerikusia izan duten subjektu pasiboen kontabilitateak aztertzen dira, eta baita garraioen dokumentuak ere eta, hala denean, ordaintzeko erabili diren bitartekoak. Mota horretako jarduketen burutzapenari dagokionez helburua 1050 jarduketa egitea da. Bigarren ekintzaren ziena balorazioak eta tasazioak da eta horretan ondasun, errenta, eskubide edo ondareetan esleitu den balioa edo aitortu dena frogatzen da. 2013. urtean ibilgailuen balorazioak kudeaketa organoek eurek egingo dituzte eta, ondorioz, ezarri den muga mota horretako 300 jarduketa egitea da.

2012. urtean helburu berri moduan sartu ziren erabiltzen diren espediente kopuruari lotuta dauden tramitazioaren ondoreetarako auditoretza informatikoen bi froga, horiek eskainiko dituzten aukera guztietan, eta baita jarduteko bide berri hauek erabiliko dituzten aktuarioen kopuruari lotuta daudenak ere. Ondore horietarako 2’013. ekitaldiko helburu moduan auditoretza informatikoa aplikatu zaien 260 espedienteko kopurua ezarri da, eta horiek erabiliko dituzten aktuarioak 43 izango direla, eta zenbateko horren barruan ikuskatzaileak, azpikuskatzaileak eta zerga eragileak sartzen dira.

Fiscales. El objetivo es que realicen 1.800 actuaciones, incluyendo, entre otras, las comprobaciones restrigidas y reducidas, las de obtención de información y la colaboración con inspectores y subinspectores.

Otro objetivo presupuestado por la Inspección es el que se denomina “Asesoramiento e informes”, que comprende dos tipos de acciones. La primera acción es la elaboración de informes y consiste en la emisión de documentos que reflejan el parecer de la Inspección respecto de ciertos hechos y, en su caso, la calificación jurídica de los mismos, con el objeto de que el órgano al que corresponda dictar la resolución disponga de todos los elementos de juicio necesarios para hacerlo con las mayores garantías de acierto. Merece destacarse que cada vez son más numerosos los que se refieren al análisis de la veracidad de operaciones comerciales, examinando, para ello, las contabilidades de los sujetos pasivos que presuntamente han intervenido en las mismas, los documentos de transporte y los medios de pago utilizados, en su caso. En relación con la realización de este tipo de actuaciones, el objetivo es que se realicen 1.050 actuaciones. La segunda acción se llama valoraciones y tasaciones y consisten en la asignación de valor o en la comprobación del declarado por bienes, rentas, derechos o patrimonios. En el año 2013 las valoraciones de vehículos pasarán a ser realizadas por lo propios órganos de gestión por lo que el objetivo previsto es que se realicen 300 actuaciones de este tipo.

El año 2012 se introdujeron como nuevos objetivos dos relacionados con el número de expedientes en los que se utilizan, en cualquiera de sus múltiples posibilidades, pruebas de auditoría informática para su tramitación, así como el número de actuarios que utilicen estas nuevas formas de actuación. A estos efectos se establece como objetivo para el año 2013 un número de 260 expedientes en los que se hayan aplicado pruebas de auditoría informática y 43 el número de actuarios que las utilicen, comprendiéndose en esta cifra los inspectores, subinspectores y los agentes fiscales.

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **05. Ogasuna eta Finantzak**<br>**05.** ***Hacienda y Finanzas*** | **02.** Ogasuna<br>**02.** *Hacienda* | **610.302** Ikuskapena eta KLTZ<br>**610.302** *Inspección y SCAT* |

Bulego Teknikoa Atala.

Honen funtzioak, batez ere, Zerga Ikuskapen Zerbitzuak adierazi diren espediente horien aurkako errekurtsoen ebazpen-proposamenen formulazioan eta zehapenak barkatzeko eskabideen agindu eta sustapenetan formalizatzen dituzten akta eta zehapen-espedienteak berrikustea eta likidatzea da. Halaber, honen zeregina da ikuskatzailetzaren jarduketetan agertu diren oinarri edo kuotei dagokienez Ganbarako Errekurtso Iraunkorrak egiten dituen likidazioen arloko jarduerak betearaztea eta ogasun publikoaren aurkako delituen espedienteen emaitzako erantzukizun zibileko likidazioak, hau da, auzitegietako epaien betearazpenean egiten direnak.

Lortu nahi den helburua da arestian aipatu diren espediente horiek eta horien emaitzako ondoko jarduketak, termino guztietan, indarrean dagoen araudian ezarri denarekin bat etortzea (zergen arlokoa, zehapenak ezartzekoa eta prozedu-razkoa), eta hori une oro zergadunen eskubideak zainduz egitea.

Argi dago ataza horien zenbatespena ikuskapenak egiteko eskumenak dituzten zerbitzu edo atalen aurrekontuetako adierazkariek aurrez ezarrita daudela –Ikuskapen Zuzendariordetzako Zerbitzuak–.

Komeni da azpimarratzea Ikuskapen Zuzendariordetzako Zerbitzuek adierazkari moduan akten kopurua, zigor espedienteak eta izapidetutako txostenak erabiltzen dituztela, eta bulego honek, berriz, horien ondorio diren likidazioen kopurua.

Zergen esparruan egon diren aldarazpen batzuengatik ikuskapenak egiteko prozeduran gertatu diren aldaketek ikuskapeneko proposamenak likidazio bihurtzeko erabiltzen ziren tresna edo prozesu informatikoen hobekuntza eta/edo berrikuntza eskatzen zuten, hain zuzen ere espedienteei buruzko informazio oso, arin eta eraginkorra lortzeko hala espedientearen jarraipenaren ikuspegitik (berariaz zaintzen dela

Sección Oficina Técnica.

Sus funciones consisten básicamente en la revisión y liquidación de las Actas y Expedientes sancionadores formalizados por el Servicio de Inspección Tributaria en la formulación de propuestas de resolución de los recursos que contra los citados expedientes se interpongan así como en la instrucción e impulso de las solicitudes de condonación de sanciones. Asimismo le corresponde la liquidación relativa al Recurso Cameral Permanente sobre las bases o cuotas descubiertas en las actuaciones inspectoras. y las liquidaciones de la responsabilidad civil derivadas de los expedientes de delito contra la Hacienda Pública, en ejecución de las sentencias judiciales.

La finalidad que se persigue es la de velar que los mencionados expedientes y las posteriores actuaciones que de ellos se deriven se ajusten en todos sus términos a la normativa (tributaria, sancionadora, y de procedimiento) vigente, salvaguardando en todo caso los derechos de los obligados tributarios.

Lógicamente, la cuantificación de tales tareas viene predeterminada por los indicadores presupuestados por los Servicios de la Subdirección de Inspección.

Es conveniente resaltar que los Servicios de la Subdirección de Inspección utilizan como indicadores el número de actas, expedientes sancionadores e informes evacuados y esta oficina el número de liquidaciones, que, en su caso, se derivan de los mismos.

Los cambios producidos en el procedimiento inspector con motivo de las diversas reformas tributarias han aconsejado la mejora y/o renovación de las herramientas o procesos informáticos que se han venido utilizando para la conversión de las propuestas inspectoras en liquidaciones, con el fin de obtener una información completa, rápida y eficaz de los expedientes, tanto desde el punto de vista del

epeak betetzea, identifikazioa eta akta berari dagokion zehapen-espedientearekin lotzea) nola ikuspegi ekonomikotik (egin diren likidazioak eratzen dituzten eta zergak kudeatzen dituzten bulegoetan egingo diren likidazioetan oinarritzat erabil daitezkeen partidei edo etekinei buruzko informazioa). 2013an derrigorrezkoa izango da bulegoko lanean laguntzen duten prozesu informatikoen zabalkuntza eta hobekuntzan lanean jarraitzea eta berariazko arreta harriko da Ikuskapenak erabiltzen dituen tresnekin lortu behar den koordinazioak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrari dagokionez etorkizunean egingo den aldarazpenak.

seguimiento del expediente (con especial atención al cumplimiento de plazos, identificación y vinculación del acta con su expediente sancionador) como desde el punto de vista económico (información sobre las distintas partidas o rendimientos que integran las liquidaciones practicadas y que pueden servir de base a las liquidaciones que se practiquen por las oficinas gestoras de los distintos impuestos). Durante el año 2013 será necesario continuar profundizando en la ampliación y mejora de los procesos informáticos que apoyan la labor de la oficina prestando especial atención a su coordinación con las herramientas utilizadas por la Inspección.

Akten emaitzako likidazioei dagokienez 2013rako helburua 2.650 egitea da, eta zehapenen emaitzakoetan 1.650, nahiz eta kontuan hartu beharko den ordaintzeko konpromisodun adostasunezko aktak izango duten eragina, zerga zorraren eta zehapenaren likidazio bakarrean amaitzen direnak.

Para el año 2013 el objetivo de liquidaciones derivadas de actas es de 2.650 y el de las derivadas de sanciones de 1.650, teniendo presente el efecto que producen las actas de conformidad con compromiso de pago, que derivan en una única liquidación de la deuda tributaria y de la sanción.

## 2. Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetza.

610.302 egitarauak, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzari dagokionez, bere helburuen artean “zergei buruzko arautegia betetzen den frogatzea” dauka. Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzari agindu zaion lan horren ardatza zergak ordaindu behar dituztenen zerga egoeraren egiaztapena da eta hori atxikita dauden zergadunek aurkeztu dituzten autolikidazioak aztertuz egiten da aztertzeko ea euren funtsezko eta formazko betebeharrak bete dituzten eta, hala denean, horien erregulazioari ekiteko.

Ildo horretatik helburu hori betetzeko burutu behar diren jarduketetarako beharrezkoa da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako, Ondarearen gaineko Zergako eta Sozietateen gaineko Zergako autolikidazioak frogatzea, horien eskumena Ogasuneko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez eratxiki delako Ogasun eta

## 2. Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica.

El programa 610.302, por lo que se refiere a la Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica, tiene entre sus objetivos “la comprobación del cumplimiento de la normativa tributaria”. Esta labor encomendada a la Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica consiste esencialmente en la verificación de la situación fiscal de los obligados tributarios examinando las autoliquidaciones presentadas por los contribuyentes adscritos a la misma para verificar el exacto cumplimiento de sus obligaciones sustanciales y formales para proceder en su caso a su regularización.

En este sentido, las actuaciones a realizar para el cumplimiento de este objetivo pasan por la comprobación de las autoliquidaciones correspondientes al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, al Impuesto sobre el Patrimonio y al Impuesto sobre Sociedades cuya competencia haya sido atribuida por Resolución

Finantza Sailaren antolakuntzari buruzko araudian ezarri dena aplikatuz.

de la Dirección General de Hacienda a la misma, en aplicación de lo dispuesto en la normativa de organización del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Beste alde batetik Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzaren bigarren helburuari dagokionez Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak eman duen “administrazioko doktrina egitea eta zabaltzea” da, hots, Bizkaiko Foru Aldundiak burutzen dituen zergen aplikazioen prozedura guztietan aplikagarria dena, batez ere zergadunek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren itzalpean egiten dituzten zergen arloko kontsulta idatziei beraiek aurkezten dituzten zergatasunari buruzko aurretiazko proposamenei erantzunez, hain zuzen ere Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko martxoaren 10eko Foru Arau Orokorraren 84, artikuluan eta hurrengoetan eta ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretuan ezarri dena betez, eta bere pentzudan dituen administrazioko organo guztiek euren funtzioak hobeto burutzearen ondoreetarako Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak ezartzen dituen administrazioko irizpideak gertutuz, hain zuzen ere administrazioaren jarduketari dagokionez helburua berdintasunaren eta orokortasunaren oinarrira iristea dela.

Por otro lado, el segundo objetivo de la Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica consiste en “la elaboración y difusión de la doctrina administrativa” emanada de la Dirección General de Hacienda y aplicable en todos los procedimientos de aplicación de los tributos llevados a cabo por la Hacienda Foral de Bizkaia, fundamentalmente mediante la contestación a las consultas tributarias escritas realizadas por los contribuyentes y a las propuestas previas de tributación presentadas por los mismos al amparo de lo dispuesto en los artículos 84 y siguientes de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia y en el Decreto Foral 101/2005, de 21 de junio, y a través de la elaboración de las instrucciones y criterios administrativos establecidos por la Dirección General de Hacienda para el mejor desempeño de sus funciones por todos los órganos administrativos de ella dependientes, tratando de conseguir que el principio de igualdad y el de generalidad en la actuación administrativa se cumpla con la máxima amplitud.

Gai horri dagokionez, ezarri da zergadunen 275 kontsulta erantzungo direla, hau da, aurreko ekitaldian erantzun zirenei jarraitasuna emanez; halaber, zergatasuneko aurretiazko proposamen berrizaleei dagokienez 8 espediente ebatziko dira, eta 4 instrukzio orokor edo administrazioaren irizpide burutuko dira, hau da, aurreko urteetako bilakaerari kasu eginez eta zergadunen segurtasun juridikoa areagotzen duten tresna hauek bultzatuz Bizkaiko Foru Ogasuna egiten ari den ahaleginari, baina ekonomi zikloaren abaguneko ezaugarriak ere kontuan izanda.

A este respecto, se prevé la contestación de 275 consultas de los contribuyentes, en una línea de continuidad con las contestadas en el ejercicio anterior, la resolución de 8 expedientes en relación con las propuestas previas de tributación y la elaboración de 4 instrucciones generales o criterios administrativos, atendiendo a la evolución de los años anteriores y a la profundización que de estos instrumentos que aumentan la seguridad jurídica de los contribuyentes quiere hacer la Hacienda Foral de Bizkaia, pero teniendo presente también las características coyunturales del ciclo económico.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **05. Ogasuna eta Finantzak**<br>**05. *Hacienda y Finanzas*** | **02.** Ogasuna<br>**02.** *Hacienda* | **610.302** Ikuskapena eta KLTZ<br>**610.302** *Inspección y SCAT* |

Beste alde batetik, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzaren hirugarren helburua “beste administrazio publiko batzuekiko harremanen zentralizazioa”, eta, horren barruan batez ere Justiziaren Administrazioko eta Ministerio Fiskalekoekikoa. Jardueraren atal honetan aurreikusi da era banakatuan informazioa eskatzeko 2000 eskabideri emango zaiela erantzuna, hau da, organo judizial eta ministerio fiskalak egingo dituztenak, eta azken horri ogasun publikoaren aurkako ustezko delituen zantzuak edo zigortzeko moduko kaudimengabeziak dituzten 12 espediente igorriko zaizkio, interes publikoentzat benetan kaltegarriak direlako eta zerga maulari dagokionez bortitzenetakoak izateagatik.

Informazioa zuzkitzeko jarduketa hauek egitea informazioa hornitzeko sistema automatizatu batekin osatzen da. Sistema horren bidez Ogasun eta Finantza Saileko zerbitzu informatikoek Bilboko Epaitegi dekanoaren bidez aitortzen diren informazio eskaera masiboei egiten die jaramon eta ahalegina egiten da informazioaren hornikuntza erarik eraginkor eta eragingarrienean ematea bermatzeko eta, aldi berean, zerga administrazioaren eskura dagoen informazioaren izaera erreserbatua, informazio hori beste organo batzuei ematea, justiziarekin lankidetzan jardutea eta izaera pertsonala duten datuen babesari buruzko legeria eraentzen duten arau juridikoak begirunez betetzeko.

Azkenik, ekitaldi honetan Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzaren laugarren helburuaren ardatza “Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren barruko koordinazioa da” eta ahaleginak egiten dira Ikuskapen Plana egiteko eskura dagoen informazioaren kalitatea eta kantitatea hobetzeko. administrazioko organoen jarduketa hobetuz ondore horretarako horien jarduketen plangintza eginez, eta, aldi berean, zerga mailaren aurkako borroka erarik eraginkorrenean garatzeko ahalegina eginez.

Por otro lado, el tercer objetivo de la Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica es “la centralización de las relaciones con otras Administraciones Públicas”, y singularmente con los órganos de la Administración de Justicia y con el Ministerio Fiscal. En esta área de actividad se prevé contestar individualizadamente 2.000 peticiones de información realizadas por los distintos órganos judiciales y por el Ministerio Fiscal, así como la remisión a este último de 12 expedientes en los que se aprecie indicios de la comisión de presuntos delitos contra la Hacienda Pública o insolvencias punibles, especialmente lesivos para los intereses públicos, al ser una de las formas más agresivas de fraude fiscal.

La realización de estas actuaciones de suministro de información se complementa con un sistema automatizado de suministro de información en el que los servicios informáticos del Departamento de Hacienda y Finanzas atienden las peticiones masivas de información canalizadas a través del Juzgado Decano de Bilbao, tratando de garantizar la mayor eficacia y eficiencia en el suministro de información así como el más escrupuloso respeto a las normas jurídicas que disciplinan el carácter reservado de la información a disposición de la Administración tributaria, su suministro a otros órganos, la colaboración con la Justicia y el respecto a la legislación sobre protección de datos de carácter personal.

Por último, en este ejercicio el cuarto objetivo de la Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica se centra en “la coordinación interna de la Dirección General de Hacienda”, tratando de mejorar la calidad y la cantidad de información disponible para la elaboración del Plan de Inspección, mejorando la actuación de los órganos administrativos desde la planificación de la actuación de los mismos y tratando de conseguir la mayor eficacia posible en la lucha contra el fraude fiscal.

**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **05. Ogasuna eta Finantzak** | **02.** Ogasuna | **610.302** Ikuskapena eta KLTZ |
| **05.** ***Hacienda y Finanzas*** | **02.** *Hacienda* | **610.302** *Inspección y SCAT* |

Ondore horietarako Ikuskapen Planean sartuko diren proposamenen tramitazioa ezarri da, hau da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskapenetik bertatik datozenak ez ezik, baizik eta zerga kudeaketa eta zergabilketa zuzendaritzetatik datozenak ere, gero Ogasuneko Zuzendaritza Nagusian 650 zergadunen zerga mailako jarduketa ikertzeko proposamenak aurkezteko.

Baita Zergak Kudeatzeko, Ikuskapen eta Zergabilketa zuzendariordetzekin koordinatuta Maularen Aurkako Bizkaiko Foru Ogasunaren Planean egingo du lan. Plan hori Bizkaiko Foru Ogasunak bizkaitar guztiontzat kaltegarrienak diren jokaerei aurre egiteko egiten dituen jarduketen benetako ardatza da, eta modu aktiboan hartuko du parte Bizkaiko Foru Aldundian Maularen Aurkako Batzordearen barruan.

Azkenik, Zuzendariordetza honek era aktiboan parte hartzen jarraituko du Informazio Sistemen Eredu Integratu berria diseinatu eta garatzeko orduan eta horrek Saileko Sistema Informatiko osoan modernizazio garrantzitsua eragingo du. Horren harira, Koordinazio eta Barne Kontrolerako Zerbitzuko burua izango da proiektuaren arduraduna, Sailaren aldetik.

Osagarri moduan, 2013. ekitaldian Ekonomi Itunak Bizkaiko Lurralde Historikoarentzat aintzatetsita dituen zergen arloko figura nagusienen aldarazpenei buruzko foru arauen aurreproiektuak betearaziko dira, bereziki Sozietateen gaineko Zergarena eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena; ildo horretatik Koordinazio eta Laguntza Teknikoa Zuzendariordetzak eta Zerga Doktrina Zerbitzuak lan aktiboa burutuko dute zergen arloan hain garrantzitsuak izango diren aldarazpen horiek garatzen.

A estos efectos, se prevé la tramitación de las propuestas de inclusión en Plan de Inspección provenientes, no solo de la propia Inspección de los Tributos del Territorio Histórico de Bizkaia, sino también de los órganos dependientes de las Subdirecciones de Gestión Tributaria y de Recaudación, para elevar a la Dirección General de Hacienda propuestas para investigar la actuación tributaria de 650 contribuyentes.

También se trabajará en la elaboración, en coordinación con las Subdirecciones de Gestión Tributaria, de Inspección y de Recaudación el Plan de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia, verdadera piedra angular de las actuaciones a desarrollar por esta Hacienda Foral de Bizkaia en persecución de las conductas más lesivas para los intereses de todos los vizcaínos, participando activamente en el seno de la Comisión de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia.

Por último, esta Subdirección continuará participando activamente en el diseño y desarrollo del nuevo Modelo Integrado de Sistemas de Información, que supondrá una importante modernización de todo el Sistema Informático del Departamento. En este sentido, el Jefe del Servicio de Coordinación y Control Interno será el responsable del proyecto por parte del Departamento.

Adicionalmente, se van a acometer durante el ejercicio 2013 los procesos de elaboración de Anteproyectos de Normas Forales de modificación de las principales figuras tributarias sobre las que el Concierto Económico reconoce a las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia autonomía normativa, singularmente, las del Impuesto sobre Sociedades y el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, y en ese sentido, la Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica y el Servicio de Doctrina Tributaria participarán activamente en los trabajos para desarrollar esas relevantes reformas tributarias.